ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko ekainaren 10a, astelehena • 65 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**189/2024 Foru Agindua, maiatzaren 30ekoa. Aldatzea maiatzaren 10eko 167/2024 Foru Agindua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hutsik dauden lanpostuak betetzeko lekualdatze lehiaketarako deialdia eta lehiaketa hori arautuko duten oinarriak onesten dituena**

2024ko maiatzaren 17ko ALHAOn (55. zk.), maiatzaren 10eko 167/2024 Foru Agindua argitaratu zen eta, haren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hutsik dauden lanpostuak betetzeko lekualdatze lehiaketarako deialdia eta lehiaketa hori arautuko duten oinarriak onetsi ziren.

Aipatutako oinarri arautzaileetako (I. eranskina) 6. B.2.1.e) apartatuak ezartzen du ezagutza espezifikoko probak egitetik salbuetsita egongo direla abeltzaintzako laborategiko analistaren lanpostura aurkezten diren administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko teknikari laguntzaileen klaseko (LH II Kimika) pertsonak.

Hala ere, ulertu behar da aurreko salbuespena aplikagarria izango dela, halaber, Laborategi Orokorreko Zerbitzuari atxikitako antzeko lanpostu batera aurkezten denean, hau da, laborategi orokorreko analistaren lanpostura (1351.001), bi lanpostuak eskala, azpieskala eta klase berean sailkatuta baitaude (LH II Kimika).

Bestalde, ikusi da merezimendu orokorren fasearekin deitutako lanpostuen zerrendan (II. eranskina) ez dela agertzen hizkuntza normalizazioko teknikariaren lanpostua (1290.004), eta, nolanahi ere, lehiaketaren deialdian sartu behar da, zerbitzu aktibora itzultzearen ondorioz behin-behinean atxikita dagoen karrerako funtzionario batek betetzen baitu.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean ezarritako Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hutsik dauden lanpostuak betetzeko lekualdatze lehiaketarako deialdia arautzen duten oinarrien 6. B.2.1.e) apartatua, honela:

Hau dioen lekuan:

“e. Abeltzaintzako laborategiko analista lanpostua. Proba egitetik salbuetsita egongo dira hauetan dauden pertsonak: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzailea, LH II Kimika.”

Hau esan behar du:

“e. Abeltzaintzako laborategiko analista / laborategi orokorreko analista lanpostuak. Proba egitetik salbuetsita egongo dira hauetan dauden pertsonak: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzailea, LH II Kimika.”

Bigarrena. Aldatzea maiatzaren 10eko 167/2024 Foru Aginduaren II. eranskina, hizkuntza normalizazioko teknikariaren lanpostua (1290.004) sartzeko merezimendu orokorren fasearekin deitutako lanpostuen zerrendan, eta lanpostuaren ezaugarriak honekin batera doan eranskinean argitaratzea.

Hirugarrena. Aldatzea maiatzaren 10eko 167/2004 Foru Aginduaren V. eranskina, hizkuntza normalizazioko teknikari lanpostuaren (1290.004) egitekoak gehitzeko.

Laugarrena.10 egun balioduneko epea irekitzea, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, honako hauek deialdian parte hartzeko eskaerak aurkez ditzaten:

a) AFAko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioek, baldin eta deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta hizkuntza normalizazioko teknikari (1290.004) eta/edo laborategi orokorreko analista (1351.001) lanpostuak eskatu nahi badituzte.

b) Laborategi orokorreko analista lanpostura (1351.001) aurkezteko eskaera hasierako epean aurkeztu dutenek, baldin eta, foru agindu honen ondorioz, aurretik eskatutako lanpostuen lehentasun ordena aldatu nahi badute.

Eskaera berri bat aurkezten bada, aurrekoa baliogabetu egingo da.

Bosgarrena. Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 30a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta*
*Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
*CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# II. ERANSKINA
# MEREZIMENDU OROKORREN FASEA DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA

| KODEA | IZENA | MOTA | DED.ERREG. | | | BET. | LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK | | | | | | ORDAINSARIAK | | LANTOKI HERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | BZT. | EZORD. JARD. | PREST JARD. | ERA. | ATXIKIPENA ADM. | ATXIKIPENA TALDEA | ESKALA AZPIESKALA/ESP | IKASKETA TITULUAK | HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | BERARIAZKO EZAGUPENAK | D.O MAILA | BERARIAZKO OSAGARRIA | |

## 25 Saila BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

### 25.2 Zuzendaritza EUSKARA ETA GOBERNU IREKIA

### 25.2.01 Zerbitzua EUSKARA

| KODEA | IZENA | MOTA | BZT. | EZORD. JARD. | PREST JARD. | BET. ERA. | ADM. | TALDEA | ESKALA AZPIESKALA/ESP | IKASKETA TITULUAK | HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | BERARIAZKO EZAGUPENAK | D.O MAILA | BERARIAZKO OSAGARRIA | LANTOKI HERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1290.004 | HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIA | EB | B | | | L | AFA | A 1 | 211 | 223 | 4 P | | 21 | 24.297,60 | VITORIA-GASTEIZ |

**Lanpostu Totala: 1**

Literalen taula, ALHAOn (1 zk.) argitaratutakoa, 2024eko urtarrilaren 3an

PAG.- 1

# LANPOSTU ZERRENDAREN LITERALEN TAULA / TABLA DE LITERALES RPT

## DEDIKAZIO ERREGIMENA

**MOTA**

- S: BAKUNA
- N: EZ BAKUNA

**BATERAEZINTASUNA (BTZ)**

- S: BATERAEZINA
- N: BATERAGARRIA

**EZORDUETAKO JARDUNA**

- 1: KULTURA ETXEA
- 2: MUSEOETAKO MANDATARIA
- 3: INGURUMENAREN ZAINTZA
- 4: MUSEOETAKO MANDATARIA (AZTARNATEGIAK)
- 6: ZATITUA, OGASUNEKOA

**ORDU PRESTASUA**

- 1: 20 ORDU
- 2: 40 ORDU
- 3: 60 ORDU
- 4: 90 ORDU
- 5: 120 ORDU
- 6: ORDUTEGI IREKIA

**BETETZEKO ERA**

- C: LEHIAKETA
- L: IZENDAPEN ASKEA

## RÉGIMEN DE DEDICACIÓN

**TIPO**

- S: SINGULARIZADO
- N: NO SINGULARIZADO

**INCOMPATIBILIDAD (INC)**

- S: INCOMPATIBLE
- N: COMPATIBLE

**PENOSIDAD HORARIA (PEN.HOR.)**

- 1: CASA DE CULTURA
- 2: ORDENANZA DE MUSEOS
- 3: GUARDERÍA MEDIO AMBIENTE
- 4: ORDENANZA DE MUSEOS (YACIMIENTOS)
- 6: PARTIDO HACIENDA

**DISPONIBILIDAD (DISP)**

- 1: 20 HORAS
- 2: 40 HORAS
- 3: 60 HORAS
- 4: 90 HORAS
- 5: 120 HORAS
- 6: HORARIO ABIERTO

**FORMA PROVISIÓN (F.PROV)**

- C: CONCURSO
- L: LIBRE DESIGNACIÓN

## LANPOSTUAN JARDUTEKO BETEBEHARRAK

**ADMINISTRAZIOA (ADM)**

- 1: AFA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
- 2: EAE : EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
- 3: GN: GAIKUNTZA NAZIONALA

**ESKALA, AZPIESKALA, KLASEA**

- 1: ADMINISTRAZIO OROKORRA
- 11: ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK
- 12: ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK
- 13: ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK
- 14: ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK
- 15: ADMINISTRAZIO OROKORRA-KUDEATZAILEAK

## REQUISITOS PARA SU DESEMPEÑO

**ADMINISTRACIÓN (ADM)**

- 1: D.F.A. : DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
- 2: C.A.V. : COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA
- 3: H.E. : HABILITACIÓN ESTATAL

**ESCALA, SUBESCALA, CLASE**

- 1: ADMINISTRACIÓN GENERAL
- 11: ADMINISTRACIÓN GENERAL-TÉCNICA
- 12: ADMINISTRACIÓN GENERAL-ADMINISTRATIVA
- 13: ADMINISTRACIÓN GENERAL-AUXILIAR
- 14: ADMINISTRACIÓN GENERAL-SUBALTERNA
- 15: ADMINISTRACIÓN GENERAL-GESTIÓN

# LANPOSTU ZERRENDAREN LITERALEN TAULA / TABLA DE LITERALES RPT

| | |
|---|---|
| *2: ADMINISTRAZIO BEREZIA* | *2: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL* |
| *211: ADMINISTRAZIO BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA* | *211: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL-TÉCNICA-TÉCNICO/A SUPERIOR* |
| *212: ADMINISTRAZIO BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA* | *212: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL-TÉCNICA-TÉCNICO/A MEDIO* |
| *213: ADMINISTRAZIO BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA* | *213: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL-TÉCNICA-TÉCNICO/A AUXILIAR* |
| *221: ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK* | *221: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL-SERV.ESPECIALES-COMETIDOS ESPECIALES* |
| *22101: Agiritegiak* | *22101: Archivos* |
| *22102: Europako gaiak* | *22102: Asuntos Europeos* |
| *22103: Liburutegiak* | *22103: Bibliotecas* |
| *22104: Dokumentazioa* | *22104: Documentación* |
| *22105: Kultura-kudeaketa* | *22105: Gestión Cultural* |
| *22106: Berdintasuna* | *22106: Igualdad* |
| *22107: Museoak* | *22107: Museos* |
| *22108: Antolaketa* | *22108: Organización* |
| *22109: Gizarte sustapena* | *22109: Promoción Social* |
| *22110: Protokolo* | *22110: Protocolo* |
| *22111: Ingurumena* | *22111: Medio Ambiente* |
| *22112: Inspekzioa* | *22112: Inspección* |
| *222: ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA* | *222: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL-SERV.ESPECIALES-PERSONAL DE OFICIOS* |
| *3: GAIKUNTZA NAZIONALA* | *3: HABILITACIÓN NACIONAL* |
| *32: GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILETZA-DIRUZAINTZA (KATEGORIA: SARRERA)* | *32: HABILITACIÓN NACIONAL-INTERVENCIÓN-TESORERÍA (CATEGORÍA: ENTRADA)* |
| *33: GAIKUNTZA NAZIONALA-IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA* | *33: HABILITACIÓN NACIONAL-SECRETARÍA-INTERVENCIÓN* |
| ***IKASKETA TITULUA*** | ***TITULACIÓN ACADÉMICA*** |
| *AIPATZEN DEN TITULAZIOETAKO BAKOITZAK DAGOZKION BALIOKIDETASUNAK IZAN BEHAR DITU, HEZKUNTZA SISTEMA BERRIAREN ARABERA EGOKITURIK DAGOZKIONAK, ALEGIA* | *CADA TITULACIÓN REFERENCIADA DEBE COMPRENDER SUS RESPECTIVAS EQUIVALENCIAS ADAPTADAS AL NUEVO SISTEMA EDUCATIVO VIGENTE.* |
| *021: 216, 241, 250 ETA 253 TITULAZIOAK TALDEKATZEA* | *021: AGRUPACIÓN DE TITULACION 216, 241, 250 Y 253* |
| *213: GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO LIZENTZIA* | *213: LICENCIATURA GEOGRAFÍA E HISTORIA* |
| *214: ALBAITARITZAKO LIZENTZIA* | *214: LICENCIATURA VETERINARIA* |
| *215: SOIN HEZKUNTZAKO LIZENTZIA* | *215: LICENCIATURA EDUCACIÓN FÍSICA* |
| *216: BIOLOGIAKO LIZENTZIA* | *216: LICENCIATURA BIOLOGÍA* |
| *219: KIMIKA ZIENTZIETAKO LIZENTZIA* | *219: LICENCIATURA CIENCIAS QUÍMICAS* |
| *220: GEOLOGIAKO LIZENTZIA* | *220: LICENCIATURA GEOLOGÍA* |
| *223: EUSKAL FILOLOGIAKO LIZENTZIA* | *223: LICENCIATURA FILOLOGÍA VASCA* |
| *224: MEDIKUNTZAKO LIZENTZIA, LANEKO MEDIKUNTZAREN ESPEZIALITATEA* | *224: LICENCIATURA MEDICINA,ESPECIALIDAD MEDICINA DE TRABAJO* |
| *225: ARTE EDERRETAN/ZAHARBERRIKUNTZA LIZENTZIA* | *225: LICENCIATURA BELLAS ARTES/RESTAURACIÓN* |
| *230: EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIA* | *230: LICENCIATURA CIENCIAS ECONÓMICAS/EMPRESARIALES* |
| *240: ZUZENBIDEKO LIZENTZIA* | *240: LICENCIATURA DERECHO* |
| *241: INGURUMEN ZIENTZIETAKO LIZENTZIA* | *241: LICENCIATURA CIENCIAS AMBIENTALES* |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

# LANPOSTU ZERRENDAREN LITERALEN TAULA / TABLA DE LITERALES RPT

| | |
|---|---|
| *242: DOKUMENTAZIOKO LIZENTZIA* | *242: LICENCIATURA HUMANIDADES DOCUMENTACIÓN* |
| *250: NEKAZARITZAKO INGENIARIA (GRADU+MASTER)* | *250: ING. AGRÓNOMO (INGENIERÍA SUPERIOR O GRADO+MÁSTER)* |
| *251: BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA (GRADU+MASTER)* | *251: ING. CAMINOS, CANALES Y PUERTOS (INGENIERÍA SUPEROPR O GRADO+MÁSTER)* |
| *252: INDUSTRIAKO INGENIARIA (GRADU+MASTER)* | *252: ING. INDUSTRIAL (INGENIERÍA SUPERIOR O GRADO+MÁSTER)* |
| *253: MENDIETAKO INGENIARIA (GRADU+MASTER)* | *253: ING. MONTES (INGENIERÍA SUPERIOR O GRADO+MÁSTER)* |
| *254: INFORMATIKAKO INGENIARIA (GRADU+MASTER)* | *254: INGENIERO/A INFORMÁTICO/A (INGENIERÍA SUPERIOR O GRADO+MÁSTER)* |
| *260: ARKITEKTURA (ARKITEKTOA EDO GRADU+MASTER)* | *260: ARQUITECTURA (ARQUITECTO/A SUPERIOR O GRADO+MÁSTER)* |
| *262: ARTE EDERRETAKO LIZENTZIA* | *262: LICENCIATURA BELLAS ARTES* |
| *263: ARTEAREN HISTORIAKO LIZENTZIA* | *263: LICENCIATURA HISTORIA DEL ARTE* |
| *289: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGENIARITZAKO GRADUA* | *289: GRADO EN INGENIERÍA DE ENERGÍAS RENOVABLES* |
| *31: 314, 315, 361 ETA 362 TITULAZIOAK TALDEKATZEA* | *31: AGRUPACIÓN DE TITULACIONES 314,315, 361 Y 362* |
| *314: NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA* | *314: INGENIERÍA TÉCNICA AGRÍCOLA* |
| *315: BASOGINTZAKO INGENIARI TEKNIKOA* | *315: INGENIERÍA TÉCNICA FORESTAL* |
| *316: INDUSTRIAKO INGENIARI TEKNIKOA* | *316: INGENIERÍA TÉCNICA INDUSTRIAL* |
| *317: HERRI LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA* | *317: INGENIERÍA TÉCNICA OBRAS PÚBLICAS* |
| *320: TOPOGRAFIAKO INGENIARITZA TEKNIKOA* | *320: INGENIERÍA TÉCNICA TOPOGRAFÍA* |
| *321: ARKITEKTURA TEKNIKOA* | *321: ARQUITECTURA TÉCNICA* |
| *323: MEATEGIETAKO INGENIARI TEKNIKOA* | *323: INGENIERÍA TÉCNICA DE MINAS* |
| *333: EUSKAL FILOLOGIAKO DIPLOMA* | *333: DIPLOMATURA FILOLOGÍA VASCA* |
| *343: OLT/EUD LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA* | *343: ATS/DUE ESPECIALIDAD ENFERMERÍA DEL TRABAJO* |
| *349: GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO DIPLOMA* | *349: DIPLOMATURA GEOGRAFÍA E HISTORIA* |
| *350: ZAHARBERRIKUNTZAKO DIPLOMA* | *350: DIPLOMATURA RESTAURACIÓN* |
| *352: GEOLOGIAKO DIPLOMA* | *352: DIPLOMATURA GEOLOGÍA* |
| *353: BIBLIOTEKONOMIAN ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA* | *353: DIPLOMATURA BIBLIOTECONOMÍA Y DOCUMENTACIÓN* |
| *361: NEKAZARITZA ETA INGURUMENEKO INGENIARITZAKO GRADUA* | *361: GRADO EN INGENIERÍA AGROAMBIENTAL* |
| *362: NATURA INGURUNEKO INGENIARITZAKO GRADUA* | *362: GRADO EN INGENIARÍA MEDIO NATURAL* |
| *363: KIMIKAKO GRADUA* | *363: GRADO EN QUÍMICA* |
| *410: LH II BASOGINTZA* | *410: FP II FORESTAL* |
| *411: LH II NEKAZARITZA* | *411: FP II AGRARIA* |
| *413: LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA* | *413: FP II ELECTRICIDAD/ELECTRÓNICA* |
| *415: LH II KIMIKA* | *415: FP II QUÍMICA* |
| *416: LH II METALA - MEKANIKA* | *416: FP II METAL-MECÁNICA* |
| *418: LH II ARTE GRAFIKOAK* | *418: FP II ARTES GRÁFICAS* |
| *419: LH II DELINEAZIOA* | *419: FP II DELINEACIÓN* |
| *427: LH II ENOLOGIA* | *427: FP II ENOLOGÍA* |
| *428: LH II AUTOMOZIOA* | *428: FP II AUTOMOCIÓN* |
| *450: PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA* | *450: TCO. SUP. EN DESARROLLO DE APLICACIONES MULTIPLATAFORMA* |

# LANPOSTU ZERRENDAREN LITERALEN TAULA / TABLA DE LITERALES RPT

| BERARIAZKO EZAUPIDEAK | CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS |
|---|---|
| 102: INGELESA (ADVANCED EDO BALIOKIDEA) | 102: INGLÉS (ADVANCED O EQUIVALENTE) |
| 200: B GIDABAIMENA | 200: CARNET CONDUCIR B |
| 201: C GIDABAIMENA | 201: CARNET CONDUCIR C |
| 202: D GIDABAIMENA | 202: CARNET CONDUCIR D |
| 203: C E GIDABAIMENA | 203: CARNET CONDUCIR CE |
| 204: D E GIDABAIMENA | 204: CARNET CONDUCIR DE |
| 205: B E GIDABAIMENA | 205: CARNET CONDUCIR BE |
| 300: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO IKASTAROA | 300: CURSO SUPERIOR PREVENCIÓN RIESGOS LABORALES |
| 301: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO IKASTAROAREN 3 ESPEZIALITATEETAKO BAT (URTARRILAREN 17KO 3DEKRETUAREN 37.2 ARTIKULUAN ETA VI. ERANSKINEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA) | 301: UNA DE LAS TRES ESPECIALIDADES CURSO SUPERIOR PREVENCIÓN RIESGOS LABORALES (SEGÚN ART. 37.2 Y ANEXOVI DEL R.D. 39/1997, DE 17 DE ENERO) |
| 302: BERDINTASUN GAIETAN ESPEZIALU¡IZATUTAKO IKASTAROA, GUTXIENEZ 180 ORDUKOA. | 302: CURSO ESPECIALIZADO EN TEMAS DE IGUALDAD (MÍNIMO 180 HORAS) |
| 303: BERLANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO IKASTAROKO ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUAREN ESPEZIALITATEA (URTARRILAREN 17KO 39/1997 ERREGE DEKRETUAREN 37.2 ARTIKULUAREN ETA VI. ERANSKINAREN ARABERA) | 303: ESPECIALIDAD DE ERGONOMÍA Y PSICOSOCIOLOGÍA APLICADA DEL CURSO SUPERIOR PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES (SEGÚN ART. 37.2 Y ANEXO VI DEL R.D. 39/1997). |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**V. ERANSKINA / ANEXO V**

## LABORATEGI OROKORREKO ANALISTA
## ANALISTA LABORATORIO GENERAL

**ZEREGINAK**

1. Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa eta euskararen erabilera indartzeko eta sustatzeko ekintza-planak diseinatu, garatu eta ezartzea.
2. Bere lan-eremuko jardueren eta ekitaldien programazioa kudeatzen eta planifikatzen laguntzea, eta horietan parte hartzen duten eragileak koordinatzea, zuzentzea eta kudeatzea.
3. Esleitutako programen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
4. Programa bakoitzari esleitutako aurrekontu ekonomikoa planifikatu, kudeatu eta kontrolatzea.
5. Bere eskumen-esparruko zerbitzu eta jardueretarako laguntza, dirulaguntza, izapide eta finantzaketari buruzko informazioa bilatzea.
6. Goragoko organoak eskatzen dizkion ebazpen-txostenak eta -proposamenak, azterlanak, estatistikak, memoriak eta bestelako dokumentuak egitea.
7. Hierarkiako nagusiek esleitzen dioten lanbide-profileko beste edozein zeregin egitea.

*******************

(*) Dokumentu honetan zehaztutako zereginak beraren oinarri funtzionalarekin bat datoz. Hala ere, hierarkian gainetik daudenek hala aginduz gero, beste hainbat zeregin ere egin beharko dira, betiere eremu funtzional eta kategoria berekoak badira.

**TAREAS**

1. Diseñar, desarrollar e implementar el Plan Estratégico para Normalizar el Uso del Euskera en la Diputación y los planes de acción para potenciar e incentivar el uso del euskera.
2. Colaborar en la gestión y planificación de la programación de actividades y eventos en su ámbito de trabajo, así como coordinar, dirigir y gestionar los diversos agentes que participen en ellos.
3. Realizar el seguimiento y la evaluación de los programas asignados.
4. Planificar, gestionar y controlar el presupuesto económico asignado a cada uno de los programas.
5. Buscar información en materia de ayudas, subvenciones, trámites y financiación para los servicios y actividades dentro de su ámbito competencial.
6. Emitir informes y propuestas de resolución, estudios, estadísticas, memorias y otros documentos que le sean requeridos por su superior jerárquico.
7. Realizar cualquier otra tarea de su perfil profesional que le sea asignada por parte de sus superiores jerárquicos/as.

*******************

(*) Las tareas consignadas en este documento responden a la esencia funcional del mismo, sin que ello suponga que su desempeño no pueda comprender otra serie de tareas pertenecientes al mismo ámbito funcional y propias de la categoría del mismo, que sean encomendadas por los superiores jerárquicos.



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.06.10 05:24:58 Z